

PATOLOGIA ETA OINARRIZKO ZAINKETAK

OCW UPV/EHU 2015

AUTOEBALUAZIOA

ERANTZUN HURRENGO GALDERAK:

PATOLOGIA OROKORRA

1. Birus infekzioetan, birusa da:

- a) Eragile endogenoa
- b) Faktore etiologikoa
- c) Faktore idiopatikoa
- d) Anatomia patologikoa
- e) Zeinu patognomonikoa

2. Aukeratu erantzun zuzena inflamazioari dagokionez:

- a) Babes mekanismo ez-espezifikoa da
- b) Akutua edo kronikoa izan daiteke
- c) Eragile endogenoek inflamazioa sor dezakete
- d) Mikroorganismoak kausarik sarrienak dira
- e) Aurreko guztiak ondo daude

3. Erantzun anafilaktikoan ematen den farmakoa da:

- a) Benabarneko atropina
- b) Larruazalpeko adrenalina
- c) Bihotz barneko adrenalina
- d) Muskulu barneko atropina
- e) Azalpeko atropina

4. Pertsona batek odol-taldea AB+ badauka, nori eman ahal dio odola?

- a. AB+
- b. AB-
- c. A+
- d. B+
- e. Guztiei unibertsala delako

5. Aukeratu erantzun zuzena immunoeskasiei dagokienez:

- a) GIB birusak eragindakoak izan daitezke
- b) T linfzitoen defizitak izan daitezke
- c) B linfzitoen defizitak izan daitezke
- d) Fagozitosiaren alterazioak izan daitezke
- e) Aurreko guztiak zuzenak dira

6. Aukeratu erantzun okerra autotransfusioari dagokionez:

- a) Bateragarritasuna % 100 da
- b) Eritropoyesia estimulatzen da
- c) Jehovaharen lekuko batzuek onartzen dute
- d) Ezin da burutu infekzio kasuetan
- e) Odola atera daiteke pazientearen hematokritoa %22 denean

7. Aipatu shockaren ohiko sintoma ez dena:

- a) Hipertentsioa
- b) Oliguria
- c) Takikardia
- d) Zurbiltasuna
- e) Buru-nahasmendua

8. Aukeratu erantzun zuzena shock hipobolemikoari dagokionez:

- a) Bihotzaren odola ponpatzeko gaitasunaren huts egiteak eragindakoa da
- b) Odol-bolumena ez da egokia
- c) Gehienetan miokardioko infartoak eragindakoa da
- d) Bradikardia agertzen da
- e) Shock anafilaktikoa shock hipobolemikoaren mota bat da

9. Zer ager daiteke sukar sindromean?

- a) Hotz-sentsazioa
- b) Hotzikarak
- c) Muskulu-uzkurdura
- d) Hodi-zabalkuntza
- e) Aurreko guztiak ager daitezke

10. Pertsona batek mina badauka, zeintzuk dira erabil ditzakegun bitartekoak?

- a) Kirurgia
- b) Aldaketa posturalak
- c) Analgesikoak
- d) Beroa
- e) Min motaren arabera guztiak erabil daitezke

11. Nola orbaintzen da zauria ez bada inoiz josten oso konplexua delako edo infekzio garrantzitsua duelako?

- a) Lehen intentzian
- b) Bigarren intentzian
- c) Hirugarren intentzian
- d) Laugarren intentzian
- e) Guztiak zuzenak izan daitezke

12. Emakume batek burua, lepoa eta 2 esku-ahur erreta baditu, Wallaceren arauaren arabera, zabalera da:

- a) % 20
- b) % 18
- c) % 10
- d) % 11
- e) % 12

13. Zein da toxikoak kanporatzeko biderik garrantzitsuena?

- a) Digestio-aparatua
- b) Giltzurruna
- c) Birikak
- d) Izerdia
- e) Gibela

14. Zeintzuk dira izozterik larrienak?

- a) 1. graduak
- b) 2. graduak
- c) 3. graduak
- d) 4. graduak
- e) Guztiak dira bezain larriak

15. Minbizia ehun konektiboan agertzen denean, zer minbizi mota da?

- a) Leuzemia
- b) Kartzinoma
- c) Linfoma
- d) Sarkoma
- e) Melanoma

16. Zeintzuk dira minbizia eta bere konplikazioak prebenitzeko oinarriak?

- a) Saihestu tabakoa
- b) Hobetu elikadura
- c) Saihestu kartzinogenoak
- d) Egin diagnostiko goiztiarra
- e) Guztiak zuzenak dira

ERANTZUNAK:

- 1.b
- 2.e
- 3.b
- 4.a
- 5.e
- 6.e
- 7.a
- 8.b
- 9.e
- 10.e
- 11.b
- 12.d
- 13.b
- 14.d
- 15.d
- 16.e